



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

UDALBATZAK 2018KO MARTXOAREN 27AN EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURA

BERTARATUAK:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia
Itziar Arratibel Imaz
Jesus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui
Irati Ozaita Azpiroz
Maria Iciar Jauregui Huarte
Eleuterio Sanchez Garcia
Victoria Rodriguez Feloaga
Juan Luis Cid Conde

BITARTEKO IDAZKARI :

Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Ibarran, **bi mila eta hemezortziko martxoaren hogeita zazpian** arratsaldeko seiak zirenean udalbatzak bilera egin zuen udaletxeko bilera-aretoan eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko osoko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden. Egintzaren buru, Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkate jauna izan zen, eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino Garcia Echave

Lehendakariak egintza hasi aurretik, eguneko gai-zerrendan aurrikusten ez den gai hau sartzea proposatzen du. Honako gai hau proposatzen du:

- EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala Katalunian atxilotu dituzten politikoez gain

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: 2018ko martxoaren 27ko Udalbatzaren eguneko gai-zerrendan sartzea honako gai honen azterketa

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Lehendakariak egintza ireki dela adierazi ondoren, eguneko gai-zerrendako gaiak aztertzeari ekin zaio:

- 1.- 2018ko urtarrilaren 25ean egindako Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena
- 2.- 2018ko otsailaren 26an egindako Ez-Ohiko Udalbatzaren bilkuraren aktaren onarpena
- 3.- 15/2018tik 79/2018ra Alkate Dekretuak jakinaraztea
- 4.- EAJ-PNV alderdiko zinegotzia zen Jose Agustin Arrieta Eguigurenen uko egitea onartzea eta Jose Ignacio Ayestaran Irurzun zinegotzia izendatzeko prozedura martxan jartzea.
- 5.- Ibarra izendegi eguneratua onartzea
- 6.- ELA eta LAB sindikatuek aurkezturiko mozioa: Asuntzio Klinikako langileen inguruan.
- 7.- Bizi-Nahi eta Duintasun elkarteek aurkezturiko mozioa: pentsioen inguruan.
- 8.-EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala Katalunian atxilotu dituzten politikoengatik.
- 9.- Galdera eta eskaerak.

LEHENA:

1. 2018KO URTARRILAREN 25EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2018ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2018ko urtarrilaren 25eko ohiko bilkurako akta

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA:

2- 2018KO OTSAILAREN 26AN EGINDAKO EZ-OHIKO UDALBATZA BILKURAREN AKTAREN ONARPENA

Irakurri da 2018ko otsailaren 26eko ez-ohiko bilkurako akta.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

BAKARRA: Onartzea, 2018ko otsailaren 26ko ez-ohiko bilkurako akta

HIRUGARRENA:

3. 15/2018TIK 79/2018RA ALKATE DEKRETUAK JAKINARAZTEA

Alkateak azken ohiko bilkuratik, 2018ko urtarrilaren 25etik aurrera onarturiko dekretuen berri eman du, hain zuzen 15/2018tik 79/2018ra.

Jakinaren gainean gelditu da Udalbatza

LAUGARRENA

4.- EAJ-PNV ALDEDIKO ZINEGOTZI ZEN JOSE AGUSTIN ARRIETA EGUIGURENEN ERRENUNTZIA ONARTZEA ETA JOSE IGNACIO AYESTARAN IRUZUN ZINEGOTZIA IZENDATZEKO PROZEDURA MARTXAN JARTZEA ONARTZEA

Udal honetako zinegotzi eta EAJ-PNV alderdiko kide izan den Jose Agustin Arrieta Eiguren jaunak zinegotzi karguaren errenuntzia dokumentua aurkeztu zuen Ibarra Udalean 2018ko martxoaren 9an 553 erregistro zenbakiarekin.

Ikusi da udal idazkariaren 2018ko martxoaren 12ko txostena eta Tokiko Erakundearen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 9.4 art.ak , (azaroaren 26ko 2568/1968 Errege 2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Dekretuak onartuak) eta ekainaren 19ko Hauteskunde Erregimen orokorraren 5/1985 lege Organikoaren 182 art.ak xedaturikoaren arabera,

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERBAKITZEN DU

LEHENA.- Udal honetako zinegotzi eta EAJ-PNV alderdiko kide zen Jose Agustin Arrieta Egigurenen zinegotzi karguaren uko egitearen berri ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea hauteskunde Batzordeari JOSE IGNACIO AYESTAREN IRUZUN jaunaren egiaztagutuna egin dezan kargua hartzeko, berau baita azken udal hauteskundeetako zerrendan hurrengoa.

BOSGARRENA

IBARRAKO IZENDEGI EGUNERATUA ONARTZEA

Ikusi da herriko izendegia zuzentzeko eta euskaratzea komeni dela. Batzuetan ortografia arauak direla, besteetan euskaratu gabe edo izen toponimikoa oker dagoelako kaleko zenbait izen zuzendu nahi dira.

2006 urtean zuzenketa espedientea ireki zen arren ez zen indarrean sartu eta orain berriz egindako lana eguneratu egin da. Lan honetarako udal artxiboa, katastroa eta Eusko Jaurlaritzako datu basea eta Euskaltzaindiako gomendioak kontutan hartu dira.

2018ko martxoaren 2ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERBAKITZEN DU

LEHENA: Onartzea ondorengo taulan azaltzen diren kaleen izen aldaketak ondorengo arrazoiengatik:

- Izen ofizialak euskaraz izateko.
- Ortografia arauak zuzentzeko.
- Apaterreka.Tolosarekin mugan dagoen kaleari bi herriek bereizten dituen errekaren izen berdina emateko. Tolosak dagoeneko izen hori Euskaltzaindiaren gomendioari jarraiki zuzenduta du.

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

	Orain arteko izen ofiziala	Indarrean noiztik	aldaturiko izenak	PLANOA
1210	APAIZ-ERREKA, BARRIO	01/03/1991	APATERREKA KALEA	P1/ HERRIGUNEA
1110	ARGINDEGI, GRUPO	20/11/2002	ARGINDEGI AUZOA	P1/ HERRIGUNEA
1120	BEKO-BIDE	01/03/1991	BEHEKO BIDE	P1/ HERRIGUNEA
1280	EGIALDE	01/03/1991	EGIALDE AUZOA	P3/ LANDA LURRA
1140	EUSKAL-HERRIA	01/03/1991	EUSKAL HERRIA KALEA	P1/ HERRIGUNEA
1150	IBAI-GAIN	01/03/1991	IBAIGAIN KALEA	P1/ HERRIGUNEA
6002	IZASKUNBURU	25/02/2008	IZASKUNBURU AUZOA	P3/ LANDA LURRA
1160	JULIANGAYARRE	01/03/1991	JULIAN GAIARRE KALEA	P1/ HERRIGUNEA
1290	MOLPOIDO	01/03/1991	MOLPOIDO AUZOA	P3/ LANDA LURRA
1220	NUUESTRA SEÑORA DE ARANZAZU	21/03/2011	ARANTZAZUKO AMA KALEA	P1/ HERRIGUNEA
6001	ORIETAPEA, GRUPO	01/03/1991	ORIETAPE AUZOA	P1/ HERRIGUNEA
6005	PLAZA IDOIAGA	01/03/1991	IDOIAGA PLAZA	P1/ HERRIGUNEA
1260	SAN IGNACIO, GRUPO	01/03/1991	SAN INAZIO AUZOA	P1/ HERRIGUNEA
1180	UZTURRE, GRUPO	01/03/1991	UZTURRE AUZOA	P1/ HERRIGUNEA
1270	ZALDUNE, GRUPO	01/03/1991	ZALDUNE AUZOA	P1/ HERRIGUNEA

BIGARRENA: Jakinaraztea harturiko erabakia interesa izan dezaketen Administrazio, entitate, enpresa, organismo... guztiei, eta bide batez, prentsan eta bando bidez argitaratzea herritarrak jakinaren gainean jartzeko.

SEIGARRENA

6.- ELA ETA LAB SINDIKATUEK AURKEZTURIKO MOZIOA: ASUNTZION KLINIKAKO LANGILEEN INGURUAN

Asunzion klinikako (Inviza) langile batzordeak eskatzen du mozio hau azter dadila Ibarra Udalbatzan eta deitzen ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Asunzion klinikak eskualdeko hospital publiko lanak egiten ditu E.S.I aren barruan. Diru publikotik 20 milioi euroko diru laguntza jasotzen duen klinika pribatua da, eskuldeari osasun arreta eman asmoz.

2013 urtetik hitzarmen bat negoziatzen saiatzen ari gara, baina enpresaren jarrera, naiz eta osasun sailetik negoziua seguru izan, eta beraien nahia dela akordiora iristea esan, bere jarrerarekin erakutsi du hori ez dela horrela.

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Guk lan publikoa egiten dugunez, gure lan baldintzak osakidetzarekin berdinduak izan behar dutela uste dugu.

Ezin dugu ahaztu hospitale publikorik ez duen EAEko eskualde bakarra garela. Eta gure baldintzak prekarioak diren ainean eskeitzen den arretak ezin du kalitatezkoa izan.

Hau guztia dela eta, BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela uste dugunez, Udal honi eskatzen diogu:

1. Hitzarmen duin bat sina dezatela eska diezaiola enpresari.
2. Herritarron diruaren jarraipen zehatz bat egin dadila, kalitatezko osasun zerbitzu bat, eta lan baldintza egokiak berretsiko dituen.
3. Berretsi dadila Tolosaldean kalitatezko osasun publikoa, doakoa, unibertsala eta gainontzeko eskualdeetako berdina izatea.
4. Udalak eska dezlaa Osasun sailarekin dagoen hitzarmena bete dadila; bereziki azpiegitura, langileria eta 3.2.1-3.2.2-3.2.4-3.3.5-3.3.2-3.3.4 puntuetan.
5. Bidal diezazkiela Udal honek onartu dituen erabakiak gazteizko gobernuari.

Asunzion Klinikako langile batek hitza eskatzen du eta honakoa agertzen du:

Negoiazioa egiterako orduan langileak deitzen gaituzte, hori esan beharra dago, baina guk ez dugu ordainsariaren igoera huts bat. Guk nahi duguna lan egiteko moduan aldaketak egitea eta egoera hori finkatzea da. Osakidetzako langileek baino 78 ordu gehiago egiten ditugu urtean eta honekin enpresak 15 lanpostu aurrezten ditu. Guk soldataren berreskurapen bat nahi dugu eta jarduera segurtasun baldintzetan emateko aukera izatea zeren langile sarrera eta irteera mugimendu horiekin soilik lortzen dena da osasun kalitatean galera sortzea. Gauza ez da soilik zerbitzuen kartera zabaltzea baizik zerbitzu horiek nola betetzen diren egoki egitea. Nahiz eta enpresa pribatua izan kontzertazio publikoa medio jarraitzen dute aurrera eta horregatik politikoek kontrolatu egin beharko lukete kontzertu publikotik datorren diru hori nola erabiltzen den, zein inbertsio egiten diren eta nora doan dirua.

EAJ-PNVko zinegotzia den Itziar Jauregik hitza eskatu eta honakoa agertzen du:

Ados gaude 1,2,3 eta 5 puntuarekin baina 4. en puntuarekin dudak sortzen zaizkigu ezin baitugu inondik inora bertan ezartzen diren artikuluen berri izan. Bilatzen saiatu gara baina ez dago modurik, beraz eskertuko genuke puntu horien inguruan azalpen bat ematea

Asunzion Klinikako langileak laburpen bat egiten dute mozioaren 4. puntuaren inguruan eta era berean honako esaldi honeki amaitzen dute “ que se invierta en la actividad y no el bosillo y que por favor se controle esa inversión por los políticos”

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Alkateak hitza hartu eta honakoa adierazten du:

Babes osoa eta Udalak bat egiten du osoki zuen eskaerekin. Bestalde Tolosan eratu nahi den mahai hori egitearekin ados gaude eta parte hartuko dugu mahai horretan.

Udalbatzak, aho-batez, 8 aldeko botorekin (4 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea ELA eta LABeko autetsiez oasaturtako Invizako langileek aurkeztutako mozioa Asuntzio Klinikako langileen ingurukoa .

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailari

18:35 direnean, Jon Mikel Iglesias Otegui zinegotzia Udalbatzan barneratzen da.

ZAZPIGARRENA

7.- BIZI-NAHI ETA DUINTASUN ELKARTEEK AURKEZTURIKO MOZIOA: PENSION INGURUAN

Bizi-Nahi eta Duintasun elkarteek honako mozioa aurkezten diote Ibarra Udalbatzari, honek onar dezan :

IBARRAKO UDALBATZARI AURKEZTEKO MOZIOA ALDERDI POLITIKOAK
DEITUZ, AHALIK ETA BIZKORREN ONARTU DEIATEN.

MOZIOA:

Ibarra Jubilatu eta Pentsiodunen BIZI-NAHI eta DUINTASUNA ELKARTEEK
ESKATZEN DUGU MOZIO hau azter dadila Ibarra Udalaren Udalbatzan eta deitzen
ditugu Udal taldeak onartu dezatela.

Pentsiodunok aspaldi nabaritzen ari gara gure pensioen eros ahalmena galtzen ari
garela. Estatuko gobernuek egin dituzten ondoz ondoko pensioen erreformek, PP-k nahiz
PSOE-k, kalte handia egin digute. Gu gara, pentsiodunok, murrizketak nozitzen ari
dugunak (hilabete bukaerara iristea kostatzen zaigu, eta batzuetan, ezin dezakegu

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

berogailua piztu); bien bitartean, badago dirua bankarentzat, elektrikentzat, enpresariantzat, ...

Pentsiodun gehienok txirotasun atalasearen azpitik kobratzen dugu, eta gero eta zailagoa egiten zaigu duintasunez bizitzea gure bizitzen azken urteotan, urte luzez lan egin eta kotizatu ondoren. Dirudenez, horrek ez omen die axola gure politikariei, biztanleriaren %25a, pentsiodunok alegia, bizi dugun egoera arintzeko neurririk ez dituztelako hartzen.

Ez da aurreneko aldia eskatzen duguna aintzakotzat har gaitzela, duintasunez bizitzen utziko diguten gutxieneko pentsioak berma dakizkigula. Honen harira, gogoan izan behar dugu pentsiorik kaskarrenak dituzten gehien-gehienak, onartezina den zigor bikoitza jasaten duten emakumeak direla .

Honengatik guztiarengatik, eta uste dugunez BORONDATE POLITIKO BATEZ ari garela, lehen adierazi dugu beste gaietarako badela dirua, UDAL HONI ESKATZEN DIOGU:

- 1.- Arbuia dezala pentsioen %0,25eko igoera ziztrina eta erreklamatu dezala haien eros ahalmenari eutsi behar zaiola.
- 2.- 1.080 €-ko gutxiengo pentsioa ezartzea eska dezala, txirotasun atalasetik irten gaitzen, Euskal Herriari dagokion eran eta Europako Gutun Sozialak ezarria betez, eta hori gauzagarria izango ez den bitartean, eska diezaiola Gasteizeko Jaurlaritzari, aipatu kopurua pentsiodun guztiek hilero eskura dezaten, behar den osagarria ezarri behar dela.
- 3.- Ezar dadila Euskal Herriko Babes eta Gizarte Segurantzza Sistema, gero eta pertsona adindun gehiagoren pentsio publikoak eta behar dituzten zaintzak berma daitezen.
- 4.- Datorren urtean, 2019. urtean, ezarri beharko litzatekeen jasangarritasun faktorearen ezarpena arbuia dadila, zeinak gure pentsioei murrizketa berria eta handia ekarriko dien.
- 5.- Bidal diezazkiela Estatuaren Gobernuari eta Gasteizeko Jaurlaritzari Udal honek onartu dituen erabakiak



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Bizi-Nahi elkarteko kide batek hitza eskatzen du eta honakoa azaltzen du:

Egoera larri baten aurrean aurkitzen gara eta gehienbat hau pairatzen dute alargun gelditzen diren emakumeak. Jubilatuen egoera oso kaxkarra da eta hile amaierara heltzeko arazo larriekin aurkitzen dira asko eta asko. Alde batetik pentsio urriak, bestetik seme-alabei lagundu behar izatea... askok ezin dute berogailua piztu ere egin dakarren gastuei aurre egiteko aukerarik ez baitute. Ikusten denez gazteek ez dute arazoaren larritasuna beregain hartu eta horregatik jubilatuek kaleratu egin gara. Madrilgo gobernuak mugimendu gutxi egin ditu arazoari aurre egiteko, soilik %3ko igoera aurrikusi da eta honek suposatuko duena da hilero 12 euro gehiago izatea. Egin behar dena oinarrizko aldaketa bat da, ez igoera txiki bat, eta oinarri minimo horiek jarririk erreuperatzen joan. Nahiz Estatu Espainiarraren ardura izan ikusirik hauek ez dutela gaian lan egiten eta zegoen poltsa hustu egin dutela (bertatik dirua beste gauza batzuetan erabili dutelarik) jubilatuek beste formula bat bilatu behar dela uste dugu non pentsioen dirua ez den ikutzen . Hau bultzatzeko apirilaren 9an mobilizazioak egingo dira Tolosan eta herritarrak bertan parte hartzea eskatzen dugu.

EAJ-PNVko zinegotzia den Itziar Jauregik hitza eskatu eta honakoa agertzen du:

EAJ txunditurik gelditu da zeren eskualdean beste mugimendu batzuk era badaude eta denen artean ez delako mozio hau adostu. Gai hau politikoa da eta alderdien artean hitz egin behar da egun indarrean dauden lege batzu indargabetu eta berriak adosteko. Amaia Arregik aurreko egunean argi utzi zuen aurrera egiteko prest daudela eta irtenbide bideragarriak aurkitu behar direla. Horregatik ados gaude mozioaren gaiarekin biana ez prozedurarekin eta aurkezten diren puntu batzuk sakondu behar direnez EAJak mozio honetan abstentzioa bozkatuko du.

Udalbatzak, aldeko 5 botorekin (BILDU) eta 4 abstentziorekin (EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea Bizi-Nahi eta Duintasun elkarteek aurkezturiko mozioa pentsioen ingurukoa.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Estatu Espainiarreko Gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari.

ZORTZIGARRENA

8.- EH BILDU KOALIZIOAK AURKEZTEN DUEN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA KATALUNIAN ATXILOTU DITUZTEN POLITIKOEN INGURUKOA .

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ibarrako Udalak bere kezka eta erabateko arbuioa adierazten du Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa kartzeleratzeko agindua dela eta, erabaki horrek oinarrizko printzipio demokratikoak urratzen dituelako.

Ibarrako Udalak Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa arrazoi politikoengatik atxilotu eta kartzelaratu izana salatzen du.

Ibarrako Udalak bere babesa eta elkertasuna adierazten die Jordi Turull, Carme Forcadell, Raül Romeva, Josep Rull eta Dolors Bassa, bai eta Kataluniako gizarte osoari ere, eta bostak berehala askatzeko exijitzen du.

Ibarrako Udalak Estatu espainolari eskatzen dio oinarrizko askatasunen aurkako estrategia errepresiboa bertan behera utz dezala demokraziaren funtsezko printzipioen kontrakoa izateagatik.

Ibarrako Udalak berresten du Kataluniak, Euskal Herriak eta munduko gainerako herriek bezalaxe, bere etorkizun politikoa erabakitzeko zilegitasun demokratikoa duela, muga herritarrek demokratikoki adierazi eta erabakitzen dutena izan behar duelarik.

Ibarrako Udalak kezka eta erabateko arbuioa adierazten du Carles Puigdemonten atxiloketa dela eta, erabaki horrek oinarrizko eskubide zibil eta politikoak urratzen baititu. Hala, Ibarrako Udalak hura askatzeko eta euroagindua bertan behera uztea exijitzen du.

Udalbatzak, aho-batez, 9 aldeko botorekin (5 BILDU eta 4 EAJ-PNV) honako hau

ERABAKITZEN DU

LEHENENGOA: Onartzea EH Bildu Koalizioak aurkezten duen adierazpen instituzionala Katalunian atxilotu dituzten politikoen ingurukoa .

BIGARRENGOA: Erabaki hau jakinaraztea Estatu espainarrari.

2018/01/25



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BEDERATZIGARRENA

9.- GALDERA ETA ERREGUAK

Eta bestelako aztergairik ez dagoenez, bilera amaitutzat ematen da goiburuan adierazitako egunaren arratsaldeko zazpiak eta hogeita hiru direnean. Nik, behin-behineko idazkari naizen honek, akta hau egiten dut bertan jasotakoaren berri emateko.